

# BALEIKE

100 pta.

47. zenb.



- Zumaiako historia 650 orrialdetan
- Hotel Zumaia irekiko da berehala
- Telmo Deunak iazko denboraldia hobetu nahi

● **Balendiñe Albisu: "Gerraren eta erbestearen olerkiak"**

# IV. Baleike komiki lehiaketa



BALEIKE

Baleike Zumaiako herri aldizkariaren laugarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen edizio berri bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitetze parte hartzera!

- 1.-** Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
- 2.-** **Pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak** izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
- 3.-** Marrazkiak **txuri-beltzean** eginak izango dira, eta luma, errotuladore, pintzel edota boligrafoz egin ahal izango dira.
- 4.-** Lanak **bakarka edota talde lanean** egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, euskarazko lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.
- 5.-** Lanak 1998ko uztailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

## FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAI

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean "ZUMAIKO IV. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA" eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobretan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

- 6.-** Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuan emango dute aditzera beren erabakia.
- 7.-** Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitaterik ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzen.
- 8.** Honako sari hauek ezarri dira:
  - 1. saria** ..... **25.000 pta**
  - 2. saria** ..... **15.000 pta**
  - Zumaiar onenarentzat** ..... **15.000 pta**
- 9.-** Saritutako lanak Baleikereren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
- 10.-** Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikereren jabegopean geratuko dira.
- 11.** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantza kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.

Foronda kultur etxea  
tel.: 943 86 10 56  
faxes: 943 86 17 42  
e-posta: baleike@yahoo.com

**Argitaratzailea**

ZUMAIAKO GAZTE  
BATZORDEA

**Administrazio batzardea**

Xabier Azkue  
Amaia Benito  
Eneko Dorronsoro  
Josu Waliño  
Iñaki Zubimendi

**Erredakzio batzardea**

Antxoka Agirre  
Esther Aizpurua  
Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Joseba Ossa

Juan Luis Romatet

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

**Kazetariak**

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Gorka Zabaleta

**Kolaboratzaileak**

Ostarrena Zine Klub

taldea, Ingurugiro tailer

eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzisidor, Josu

eta Arantxa, Igone eta

Nerea, Rikardo

Zengotita, Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

**Komikia**

Jon Manzisidor

**Argazkiak**

Jonathan Bernal

Baleike

**Diseinua**

Juan Luis Blanco

**Maketazioa**

Argi Aizpurua

**Hizkuntz zuzenketa**

Itziar Uranga,

Xabier Azkue

**Banaketa**

Eneko Dorronsoro

Ainara eta konpainia

**Publizitatea**

Iñaki Zubimendi

(943 143226)

**Inprimategia**

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

**Tirada**

1.000 ale

**Lege gordailua**

SS-405/94

**ISSN**

1136-8594

**Baleikek ez du bere gain har-**

tzen aldizkarian adierazitako

esanen eta iritzien erantzuki-

zunik.

## Udaberriak...



Joseba Ossa

Kaixo:

Udaberrian ondo sartuak gara. Laster da "uda berria" ere gainean.

San Telmoak joan ziren, eta San Pedroak badatoz, opor usaina ekarriz, bidaiatuz mundua ikusteko grina piztuz.

Eta munduan badirudi udaberriak haize berriak ere ekarri dituela hainbat lekutan. Aipagarrienak, nola ez, Ipar Irlandako haize berriak, negu ilun eta luze bati amaiera eman diezaioketen haize berriak, oraindik zaila den egoera batean itxaropena piz dezaketena haize berriak.

Hego Afrikan oraindik injustizia ugari, baina Mandela da lehendakari. Frantziako 68ko maiatzatik ezer gutxi geratzen da, baina han ere bizi izan zuten hainbat udaberri. Txekoslovakia ohian aspaldi dastatu zuten Pragako udaberria. Palestinan ere, zailtasunak zailtasun, zerbaitetan ari dira. Berlin aldean ez dago paradisu-rik, baina eroria da jadanik harresia...

Eta geure artean? Badirudi hemen ere hainbat harresitxo erortzen ari direla, eta zenbait gatazka eremu lankidetzara eremu bihurtu daitezkeela.

Elkar ulertzea lortuko al dugu? Etorriko ote zaigu udaberri berririk?



### Premiazko telefonoak (943 aurretik)

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka	14 32 64
Polikiroldegia	86 20 21	Tren geltokia	86 11 27
Gurutze gorria	86 10 93	Taxi geltokia	86 13 60
Udaletxea	86 02 50	Bake epaitegia	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00	Posta	86 15 00
Osasun zentrua	86 08 62	Udaltzaingoa	86 18 70
San Juan Egoitza	86 12 73	Pilotalekua	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00	Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Musika eskola	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	86 02 48
Alkoholikoen senideak	47 54 03	Sexu-informazioa	32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



fundazioa  
fundación



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**Beti gazte dantza taldeko dantzarien kexak eta proposamenak**

Apirilaren 19an igandean, Beti Gazte Dantza Taldeak eskainitako saioaren ondoren, lau ondorio atera ditugu:

1- Ikusleek txalo gutxi jotzen zuten eta honen ondoren, guk animatu behar izan genituen gure taldekideak.

2- "Axuri-Beltza" deituriko dantza saioa egiterakoan, txistulariak, entsaiuetan nola jo ondo adierazi arren, ez zuten guk esan bezala jo eta ondorioz, gu, dantzariak, lotsagarri geratu ginen zer egin ez genekiela, ia urtero bezala.

Egña eta bere zuzendaritzapean dauden txistulariak, gehiago arduratu beharko lukete dantzarien dantzen kanten erritmoaz, entsaiu gehiagotara etorriaz eta dena azkenengo unerarte utzi gabe.

3- Une hau aprobetxatu nahi genuke, Beti Gazte dantza taldean, mutilen beharra dagoela adierazteko. Informazio gehiago nahi duenak, zineko takilara jo dezake.

4- Beti Gazte Dantza Taldearen historia laburrean, 18 urtetan zehatz-mehatz, bederatz aldiz aldatu gaituzte lekuz. Hasieran, parroki alboko eskola txikian. Gero, Jesus Martin eta AEK Euskaltegian (artearen berritu gabe zegoela). Ondoren, Foronda Kultur Etxean hau ere konponketak egin gabe zeudela. Jarraian, Julene Azpeitia ikastetxean. Polikiroldegian ere ibili gara. Berrito ere Foronda, berritu ondoren baina goiko pisuan geundenez, fluorescenteak botatzen genituela eta, Telefonikako lokalera joan ginen.

Honen atzetik, polikiroldegira bueltatu ginen berriro baina igerilekua egiteko bota egin dutenez, orain Arrangoletako Ikastolan gaude, baina ez dugu uste denbora askorako izango denik, ikastolako eraikuntza hori botatzekotan baitira.

Honenbestez, lokal egonkor bat eskertuko genukeela adierazi nahi genuke.

**ZUMAIAKO DANTZARI BATZUK**

**Telebista? Bere txokoa.**

Aurreko Baleiken Jon Sodupek telebistaz idatzitakoa irakurri ondoren ezin izan dut "ixilik" geratu. Izan ere, azkenaldi honetan askotan pentsatu izan dut telebistaren inguruan.

Aste Santua hasi zenetik telebistarik gabe dugu etxeko egongela.

Hasieran "oporretako plana" besterik ez zen, etxeko bi umeak (4 eta 7 urtekoak) telebista gehiegi ikus ez zezaten, eta elkarrekin denbora gehiago emateko. Erabat erretiratu genuen telebista, ganbarako txoko batean gordez. Hasieran protestak ere entzun genituen, baina laster baretu zen egoera, eta harrezkero askoz atseginagoa da etxean egotea. Baina Jonek ederki esaten zuen bezala, kontua ez da muturretara jotzea, hori ere kaltegarria izan daitekeelako.

Orain etxeko gelarik aparteenean dago telebista, bere lekuan, eta ez egongelaren erdian, lehen zegoen bezala. Gauza bakoitzak bere lekua behar du. Telebistak bere txokoa behar du, baina ez gaur egun duen protagonismo izugarri hori. Zeren alde

batetik gauza ledeira da halako aparatu bat izatea etxean, bai gauza politik ikusteko eta ikasteko, eta baita noizbehinka lasaitu eta edozein gauzari begira egoteko ere. Baina ezin dugu ukatu eragiten dituen kalteak ere izugarriak direla: etxe askotan ez da ia hitz egin ere egiten; sukalderraino ere sartu da, etxeko "bihotza" konkistatuz; pertsonen artean hain beharrezkoa den komunikazioa izugarri kaltetzen du. Gurasoontzat "txollo" bat ere bada batzuetan, "umeeke pakean uzteko" erabiltzen dugulako, baina azken finean hori ere kalterako, etxeko goxotasuna galdu egiten delako, komunikazioa pikutara joaten delako, eta ez duelako uzten umeen (eta geure) sormen gaitasuna behar bezala garatzen, eta abar eta abar. Eta hainbat "zabor" ikusita, zer esanik ez... Hitzetik hortzera indarkeriaren aurka mintzo diren asko sartu dira "audientziaren diktadura" omen denaren jokoan eta umeentzat indarkeriazko marrazki bizidunak dira nagusi. Eta Futbola? Gizarte berriaren Mito eta Jainko berria? "No comment".

Noizbehinka telebista ikusten segiko dugu, noski, baina gauza bat dago garbi: hobeto bizi nahi badugu, hobe telebista bere txokoa ipintzea, batez ere Frantzia aldetik laster datorkigun "bonbardaketa" hori hobeto jasan ahal izateko. Egizu probatxo bat (ahal baduzu, noski). Ez zara damutuko!

**J.J.O. (N.A: 15.976.247)**



**ALBAITARITZZA  
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zentze etxean

Basadi, 7 behea  
Tel. 143310  
Tel. mugikorra: 908- 775508



**Alberdi**

Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6  
Tel. 861155



**ANA**  
ETXEROKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156



Andoni Manterola

### Udara gainean

*Iritsi zaigu aurtengoz era  
betiko bero garaia  
itxura aldatuz beltz-beltz jartzea  
jende guztiaren nahia  
kanpoaldetik etorri ohi da  
atzerritarren usaia  
nola aztora litekeen udan  
neguko giro lasaia.*

*Herri osoa murgildutzen da  
zorabio haundi baten  
jendea non-nahi ibili ohi da  
ta festak han eta hemen  
larri antzean ibiltzen gera  
denetaraino iristen  
zer gertauko dan inork ez baitu  
sekulan ere jakiten.*

### Lan merkatua, gizarte arazo

Gizarte honetan ondasun eta zerbitzuen merkatuan sartzeko herritar gehienok dugun era bakarria lan merkatuan sartzea da, soldata baten jabe izatea baita gure beharrak osatzeko dugun bidea.

Langabezian edo lan merkatuan sartu ezinik geratzen garen unetik, ondasunak sortzen dituztenen gunetik kanpo ateratzen gaituzte, ondorioz soldatarik gabe bizi-beharrak lortzeko sortzen diren arazoez gain erabat baztertuak sentiarazten gaituzte. Gainera giza laguntza garrantzitsuenak (erretiroa, langabeziko mantenu saria, e.a.) lortzeko, lan merkatuan sartuta egotea ezinbestekoa gertatzen da.

Bestalde, nahiko garbi dago lan merkatua bera dela hainbat giza desegokitze sortzen dituen, berak agintzen baitu (teknologia medio) produkzio erak gero eta eskulan gutxiago behar dituela, langileak baztertuz, langabezia sortuz, lan baldintzak gogortuz, ordu gehiagoko lan saioak bultzatuz e.a. eta askotan lana egiten dutenak berak ere ordaintzen zaizkien soldatak direla eta pobrezia atarian murgiltzen ditu.

Gaurko lan antolaketa hau bera baita, hainbat giza ezberdintasun sortzen duena. Nola eskatu sistema honi guztiontzako lana?

Gizarte arazoak aztertu eta irtenbideak bilatu nahian saiatzen diren zenbaitek diote eskakizunak egiterakoan areago joan behar dela.

Hauen esanetan, langabeziak sortzen dituen ondorioak konpondu nahirik gastatzen diren baliabide asko beste era batera erabiltzea komeniko litzatekeela, ez bakarrik lan banaketan, gaurko lantegi kapitalisten sistemetatik ihes eginez, banaka, familian edo elkarte moduan, iharduerak bultzatu eta erraztuaz.

Era berean, planteatzen dute, lan eskubidea ziurtatu dadin, herritar bakoitzak gutxieneko soldata jasotzeko eskubidea ezartzea. Honela lan merkatuan sartu ala ez, bakoitzak bizi ahal izateko diru sarrera ziurtatua luke, sistema honetan egoera sozialak ezartzen duen derrigorrezko eta edozein baldintzarako lana egin beharra gainditzeko bide izan liteke...

Badago bai zertan gogoeta egin.

TERE



### Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA  
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe  
Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

## Hil honetan, estazioko etxe horian, Zumaia hotela irekiko dute

Hamasei gela, taberna, jatetxea eta bi izar izango ditu

Zumaiako Herri Eskolaren eraikin berriaren ondoan egiten ari diren etxe horian kokatuko da hotela, eta Dani Arratibel ataundar gazteak, azken urteotan Oikiako Jesuskoa jatetxea-rekin aritutakoak, hartuko du bere gain.

Hiru fasetan gauzatuko da proiektua. Lehenik, hil honen bukaeran, logelak eta harrera gela jarriko dituzte martxan, irailean taberna, eta azkenik jatetxea udazkena edo neguan.

Hotelak ez du eraikin osoa hartuko, zati bat baizik. "Eraikin berean etxebizitzak ere egongo dira, baina hotela aparte geldituko da, sarrera eta



zerbitzu propioak izango baititu" esplikatzeko modukoa. "Denboraldi bajaran 5.000 pezetan jarriko genuke gela eta altuan zerbait gehixeago" zehaztu digu.

zerbitzu propioak izango baititu" esplikatzeko digu Danik. Beheko solairuan harrera gela, taberna eta jatetxea jarriko dituzte, patiora ateratzen denez jatetxea kristalezko sabaiarekin, azpian garajeak, eta lehenengo solairuan bileretarako gela haundi bat eta hamasei logela. Jatetxea eta taberna hotelean ez daudenentzat ere irekiak egongo dira, eta izatez tabernak bere sarrera propioa izango du.

Garestia izan gabe txukuna suertatuko den hotela da Danik buruan daukana, erdi mailako gauza bat, laneko bidaian datorren teknikaria edota herrira egun batzuk pasatzera datorren edozein

hartzeko modukoa. "Denboraldi bajaran 5.000 pezetan jarriko genuke gela eta altuan zerbait gehixeago" zehaztu digu.

Lekua asko gustatzen zaio, "urbanizazioa bukatutakoan tren geltokitik bi pausotara geldituko da hotela, bariantea egiten dutenean herritik pasatzen den guztiaren bistan, eta Eroski, polikiroldegia eta eskolak ondoan izanda tabernak mugimendu pixkat izatea ere espero degu".

Itzuznelain egin behar dutenaren ondoan eta honen aurretik Zumaia hotela izango dugu bada herrian.

◀ ANTOKA AGIRRE

### AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45

Tel. 861485



### AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



### Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433  
Faxa: 861067

## AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441



### AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

## ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

BALEIKE

1998ko ekaina. 47. zenb.

## Santixo hondartzako aparkalekuarekin gorabeherak

Santixoko hondartzako aparkalekuak okupatzen duen lekua dela-eta, hainbat kexa zabaldu dira herritarren artean azken urteotan. Izan ere, batez ere uda garaian, arrisku handiko gunea bilakatzen da bertatik igarotzen den edonorentzat.

Hondartzako eskilarak igo eta herrirako norabidea hartzeko, oso metro gutxi dituen espaloi bat dago. Hau amaitzen denean, aparkalekuak hasten da, baina hemen arazo batekin aurkitzen dira hortik pasa behar duten guztiek. Kotxeren bat espaloiaren alboan aparkatuta egonez gero, ez dago pasatzeko tokirik eta errepidetik joatea besterik ez da geratzen, honek dakarren arriskuarekin. Gainera, hau, autoei bizkarra emanaz egiten da.

Uda garaian arazoa benetan larria da, jende asko baita horrela ibiltzen dena. Haurrak eta gurasoak beren ume txikien kotxetxoak eramaten ikustea gauza normala bihurtu da, eta oraindik istripu larriren bat egon ez den arren, hau gertatzeko arrisku handia dago.

Egoera honen berri aspaldi eman zaió Diputazioari, orain dela hiru urte gutxi gora behera. Dena den arazoari ez dio irtenbide bat eman, baina Udaletik argi utzi denez, uda garaia iritsi baino lehen soluzio bat aurkitu nahi diote. Diputazioak ordurako arazoa konpontzen ez badu, Udalak berak irtenbide bat emango diola baieztatu dute. Lehen aipatutako espaloia luzatzea irtenbide bat izan daiteke, kostu gutxi izango lukeena

eta denon segurtasuna bermatuko litzateke horrela. Arazoa ez da txantxetakoa. ◀

Gune honetan sortzen da arazoa.  
Argazkia: Jonathan Bernal



## Odrinox enpresa berria Meagasen

“Inoxidableen” enpresa berri bat irekiko da hemendik lasterrera Meaga bidean dagoen pabilioian. Toki honetan orain dela urte gutxi batzuk arte itsas belarren negozio bat zegoen, baina arazo ekonomikoak zirela-eta, itxi egin behar izan zuten.

Orain berriz, Odrinox-ek, egun Aizarnazabalen kokatuta dagoen enpresak, eramango du bertan bere iharduera ekonomikoa. “Inoxidableak” produzituko ditu eta irekitzeko lizentzia jaso

duenez, aste gutxi barru martxan jartzea espero da. Itsas belarren enpresarekin, arazotxo batzuk izan ziren pabilioaren baitan dagoen ingurune natural aberatsa ez zuelako erabat errespetatzen, baina oraingo enpresarekin, horrelakorik ez dela gertatuko ziurtatu dute adituek.

Aurreikuspenak betetzen badira, Odrinoxek, kokaleku berriarekin lanpostu batzuk sortuko ditu.

◀ IGOR URANGA

Pabilioi honetan jarriko da martxan enpresa berria  
Argazkia: Jonathan Bernal



*balezulo*  
importaturiko errofa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D  
Tel. 861449

**BARRENETXEA**  
*Garraioak*

**GARRAIO ASTUNAK**

**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25  
Tel. 862073

# Ehun etxebizitza egiten ari dira Gernika parkean



Etxebizitzak egiteko azken urteetan dagoen joerari jarraiki, Gernika parkea eta N-634 errepidearen artean 110 etxebizitza eraikitzen ari dira. Gehiengoak libreak dira eta hogeitahaber beren egoera kalifikatzeko zain daude.

Altuna eta Uria enpresa azpeitiarra da eraikin hauek egiten ari dena eta

dagoeneko 70 bukatuta daude. Hemendik gutxira beste hogeitahaber etxebizitza egiteari ekingo diote. Gehientsuenak pisu handiak dira, 80 metro karratukoak eta prezioei dagokienez, aldatu egiten dira dira lekuaren arabera. Urola ibaiari begira dagoen pisu batek, 25-28 milioi pezeta artean balio du, eta aldiz, errepide aldera begira dagoen beste batek, 18 eta 20 milioi pezeta arteko salneurria du.

Jadanik 50 bat etxebizitza saldu dira eta orain eraikitzen hasi behar diren hogeitahaber etxebizitza horietatik asko saltzeke daude. Norbait interesatuta balego, Inmobiliaria Zumaia eta eraikitze lanetan dagoen kaxetara joan

daiteke edo honako telefono hauetara deitu: (943) 862577-(943) 860153.

Altuna eta Uria enpresatik adierazi dutenez, erosle gehienak zumaiarrak dira, baina badira, Eibar, Elgoibar eta Durango aldekoak ere.

Bestalde, azpimarratu etxebizitza guzti hauen inguruan egongo den urbanizazioa. 5.000 metro karratu baino handiagoko urbanizazioa, jardinez, dindan, banku eta abarrez hornitua. Aparkaleku irekiak asko izango dira eta lur azpikoak ere 60 bat, denak itxiak eta individualak. Aurreikuspenak betetzen badira, etxebizitza guztiak eta inguruko urbanizazioa 2000. urterako amaituko dira. ◀

## Estazioko bidea berehala konponduko dute

Hasiera batean zegoen egitasmoa erabat beteko ez den arren, laster batean, hainbat buruhauste eman duen estazio kaleko errepidea konpontzen hasiko dira. Une hauetan obra batzuk egiten ari dira Lagun Artea taberna alboan baina hauek industrialdeko urbanizazioari dagozkionak dira eta ez estazioko errepideko txukunketarekin lotuak.

Konponketa ez da pentsatzen zen bezala egingo. Hemendik urte gutxira eraiki nahi den bariantea dela-eta, ez dira burutuko hasieran egin nahi ziren konpontze lan guztiak. Bariantea, Estazioko zonalde horretatik pasatuko

da, eta oraindik erabaki ez dutenez zehatz-mehatz zer nolako itxura hartuko duen bertan, ez da behinbetiko txukuntze lan handia egingo; horrela dirua alferrik gastatzea ekidin nahi da.

Estaziora sartzeko bidegurutzetik hasi eta Lagun Artea Tabernako aldapatxoraino luzatuko dira konponketak; errepide zati horretan konponduko da bidea. Lan hauek Galdiano Zestoako enpresak egingo ditu; eta guztira, 15 milioi pezeta baino gehiagoko aurrekontua du eta ez hasiera batean aurreikusirik zeuden 27 milioi pezeta. Errepidean dauden zulo guztiak estali

eta behar den bezala jartzeaz gain, ur saneamendurako hodi bat ezarriko da.

Kale honek buruko min handiak eragin ditu. Alde batetik, lurtean dauden batxe eta zuloek ibilgailuak gidatzeko arazo handiak jartzen dituzte. Bestalde, euri jasa handiak daudenean, kale erdian izugarritzko putzuak osatzen dira. Honek guztiak, zumaiarren hainbat kexa eta haserraldi eragin ditu, baina badirudi behingoz arazoa konpontzeko zorian egon daitekeela.

◀ IGOR URANGA

# CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA  
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK  
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

**Fotokopiak 5 pezetan**

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453

Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 862051



DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

# EGOKI



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



**Zelaiako etxea behera bota dute.**

Proiektuan horrela zehazten ez zen arren, Zelaiako etxea behera bota dute azken asteotan. Bere kanpoaldea hein handi batean behintzat zegoen bezala mantentzea nahi zen, baina antza denez, hormak egoera txarrean zeuden, eta behera botatzea zen egokiena. Dakizuenez, eraikin horretan hotela eta talasoterapia zentru bat joango da; hemendik gutxira, gainera, urbanizazioko lehen lanei ekingo diete.

**Presoen aldeko mobilizazioa.**

Maiatzeko udal plenoan Senideak-eko partaide batzuk giza eskubideen alde eta jasatzen duten egoera kaxkarra salatzen duen panfletoa banatu zizkieten zinegotzi guztiei. Halaber, Udaletxearen aurrean minutu batzutan pankarta bat zabaldu zuten.

**BBV banketxearen aurka erasoa.**

Maiatzaren 24an goizaldeko ordu biak aldera, Martinez Kleisser kalean kokatuta dagoen banketxe horren aurka molotov koktel bat jaurtiki zuten. Sortutako kalte materialak ez ziren handiegiak izan, baina bertako kristal bat apurtuta geratu zen.

**Mendaro Marinela kalean berrikuntzak.**

Kale honetako zorua berritzen ari dira; zehazki baldosa batzuk ezarri behar dituzte zoruan. Horregatik, bide hau itxita dago obrak amaitu bitartean. Honek aldaketa batzuk ekarri ditu, izan ere anbulatoriora larrialdi batengatik autoz joan behar duenak ezin baitu kale horretatik pasa. Dena den, zubi berriaren aurrean larrialdi kasu hauetarako lau bat aparkaleku egokitu dira. Anbulantziek berriz, Osasun Zentrura joateko itsaskiroldegi albotik sartu beharko dute.

**Zumaiar gazte bat atxilotua 61 kilo haxixekin.**

Guardia Zibilak 23 urteko gazte zumaiar bat atxilotu zuen ekaineko lehenengo asteburuan zeraman autoan 61 kilo haxix atzeman ondoren. Operazioa Arrigorriagako ohiko kontrol batean burutu zen. Droga Marokotik zetorren, Gipuzkoan banatzeko asmoz eta segurtasun indarrek esandakoaren arabera, harrapatutako droga kopuru guzti horrek 42 milioi pezeta baino gehiagoko balioa izango luke.

**ekin**  
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak  
instalazio musikalak  
antenak - parabolikoak  
akumuladoreak  
portero automatikoak  
telefonía

Televés  
Instalador  
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

SATELITI  
CANAL DIGITAL

Erribera, 18  
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa 943 - 143097  
629 - 450777

EGUZKI  
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

## Balendiñe Albisu

“Queipo de Llanok eragin zidan amorrazioak bultzatu ninduan lehen olerkia idaztera”

*Venezuelara joan zen faxis-  
tengandik ihesi eta Zumaia  
hotela jarri zuen Karakas-en.  
Hego Ameriketara batera eta  
bestera ibilia, garaiko  
aldizkari eta irratsaio  
abertzaleen kolaboratzaile,  
bere etxean ETakoak eta  
politikariak jasotakoa...  
erbestean egin ditu urterik  
gehienak eta bere herriari  
eskaini dizkio bere olerki  
guztiak. Duela hiru urte itzuli  
zen Zumaiara bertan  
bizitzera, eta Interneten bidez  
bidaltzen dizkio eskutitzak  
Karakasen gelditu den  
alabari. Aspaldion elkarrizke-  
tarik ematen ez badu ere  
aitzakiarik gabe hartu gaitu  
bere etxean 'Baleike' gustora  
irakurtzen omen du eta*



**■ Zumaian bizi zara orain, baina munduan makina bat buelta emandakoa zara, ezta?**

Bueno, 39an Euskal Herritik Venezuelara joan ginan Frankoren-gandik ihesi, eta ordutik itzuli naizen arte Karakas-en egin det nere bizitza. Bertan jarri genduan hotela senarrak eta biok, eta bertan hazi genituen geure haurrak, baina Hego Ameriketako beste lurralde batzuk ere ezagutu ditut, lagunuen baten etxean denboraldi bat eginaz edo hurrekin oporretara juanda. Kuba, Puerto Rico, Santo Domingo... bai, Hego Amerika gehiena ikusita nago.

**■ Nola gogoratzen dituzu ihesi joan behar izan zenuteneko egun haiek?**  
Egun latzak.

36ko Agorraren 21ean faxistak gain zetoze eta, Zumaia utzi eta unti batean Ondarrura jun nintzan anaiekin. Hurrengo gauean anaiek galdu eta lagun batekin Mundakara joan nintzan. Hantxe pasa nun gerra denbora, eta hantxe ezagutu eta ezkondu ginan Joan Manuel Bilbao senarra eta biok.

Mundaka galdu genduan Bilbora, hura galdutakoan Santanderra, eta handik Iparraldera, Bidartera. Eusko Jaurlaritzak 'Larroserre' zeritzon etxe haundi bat zeukan han eritegi bezela erabiltzen zana, eta hantxe aritu nintzan ahal nuanian laguntzen.

Han jaio zan baita nere lehenengo semea, Iosu.

39an, gerra bukatu zanean, bueltatu baino beste norabait hobe genduala erabaki genduan, eta Venezuelara joan ginan.

*“Garai hartan insumisioa egon bazan insumisio egingo zan nere anaia”*

**■ Zer moduzko giroa zenuten erbestetarikoko euskaldunen artean?**

Oso giro ona. Danak konpontzen ginan elkarrekin. Ez orain bezela... batzuk handik, besteak hemendik, danak elkar ezin ikusita.

Gu zer gea?, gauz bat, euskaldunak, beste ezer ere ez, eta euskaldunak egin behar du euskaldunai lagundu. Nere bizitza hori izan da. ETakoak ere hartzen nitun nere etxean, Karakas-en. Julen Madariaga eta beste asko. Nik papelak arreglatzen nizkien eta Joxe Felix Azurmendik lanerako kontratuak lortzen zizkien. Baina gero komunismua gora ta bera hasi ziran, alperrikako kontuekin, abertzalea danak ez baitu zertan komunista izan beharrik, eta dana nahastu zan.

Orain gauza onak ere badaude. Hor dago insumisioarena. Ni insumisioaren alde nago. Anai bat soldautzan hil

zitzaiten hemezortzi urterekin. Ferrolea tokatu zitzaion. Hagineko mina zuala eta, ospitalera eraman zuten eta hantxe gelditu zitzaien mutila. Ez det uste hagineko minakin hilko zanik. Garai hartan insumisioa egon bazan insumiso egingo zan nere anaia... .

Baina jeneralian gauzak ez ditut ondo ikusten, gorroto gehiegi. Hoztuta nago oso oraingo martxakin...

### ■ Nondik datorkizu idazteko afizioa?

Gernikako bonbardeua izan zanian bertan harrapatu gintun. Herrian sarreran zegoen kolegio batera junda ginan lagun batzuk jasotzera, eta hantxe geundela abiazioa azaldu eta bonbak lehertzen hasi ziran. Kotxea utzi eta trintxera batea sartu ginan korrika baten, eta bertatik ikusi genduan pesta dana.

Mundakako etxera itzuli eta Queipo de Llano, faxisten buruetakoa izan zan bat, entzun genduan Gernika erre zutenak euskaldunak izan ginala esanaz. Eta amorrua eman zidan.

Bastante gerora ere tripetan bueltaka neukan Queipo de Llano madarikatua, eta halaxe idatzi nuan nere lehenengo olerkia, 37an, 'Gernika sutan'.

Aurretik irakurri ere asko egiten nuan. Komunean irakurtzen nituan debekatutako liburu pila bat, Unamunoren 'Tragica de la vida' eta holakuak, baina gerra garaian hasi nitzen idazten.

### ■ Zeure olerkiak biltzen dituen liburua ere kaleratu zenuen, noiz eta nola izan zen hori?

Venezuelan bertako aldizkari abertzale guztietan hartu nuan parte nere olerkiekin. 'Sabindarra', 'Irrintzi', 'Euzko Gaztedi' eta 'Euzkadi'-n hain zuzen, 60 eta 70eko hamarkadetan. Irratitik ere irakurtzen nituan olerkiak, Euskadi Irratitik, eta jendeak Mexiko eta Argentinatik ere idatzi izan zidan olerkiren bat oso gustokoa izan zuala eta holakoak kontatuaz.

Olerki piloak neukan gordeta, eta hemen euskerazko liburuak hasi ziranian Aita Santi Onaindiari bidali

nizkion batzuk eta honek liburua atera zuan.

Liburua ez dago euskera batuan idatzita. Nik amaren euskera dakit, ez besterik, eta halaxe idatzi nituan nere olerkiak Resurreccion Maria Azkueren gramatikaren laguntzarekin. Liburua 84an argitaratu zuten, euskera batua sortu ondoren beraz, baina olerkiak lehenagokoak dira eta danak zuzentzen hastea nekoso eta arraroa egin zitzaitenez idatzita zeuden bezela atera nituan.

### ■ Gerra amaitu zenean, eta Franko hil eta gerora ere, ez zinen berehala itzuli Zumaira, zergaitik?

Gerra ondorenean itzuliz gero kartzelara sartuko nindutenaren bildurra nuan. Erbestera aurretik 'Muera España' deitzen ninduten herrian, beheko plazan ematen nituan mitinak beti "Muera España!" batekin bukatzen nitualako. Nahiko ezaguna nitzen abertzale bezela, eta etxean ETakua ere hartu nituen ezin nitzen itzuli.

Gero, badago beste arrazoi bat duela gutxirarte Venezuela eta Zumaia artean bueltaka ibilarazi nauena: seme-alabak.

***"Erbestean gelditu diren semea eta alabarena dira gerra madarikatuaren azken hutsunak"***

Bi, Iosu eta Imanol, Zumaian dauzkat, baina beste biak, Asier eta Goizeder, Venezuelen gelditu dira. Asier arkitekturako irakaslia da eta Goizeder filoso-fiakoa, biak bertako unibersidadian, biek beren bizitza egin dute han, eta ez dute hona etortzerikan.

Horixe da gerra madarikatuak utzi ditan azken hutsuna, erbestean gelditu diran semea eta alabarena.

Hala ere dezente harremana daukat biek. Asier udara hontan dator Euskal Herrira doktoradua egitera, eta Goizederri zortzi egunetik zortzi

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaia plaza, 15  
Tel. 862458



**ENTER**  
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta  
zerbitzu teknikoak  
hardware eta software  
informatikako kursoak

Tel. 861175

Faxa: 860550

Baltasar Etxabe z/g

**expert**




**ELEKTROGAILUAK**

**MERTXE AIZPURUA**

Etxezarreta, 6

Tel. 861078



**Amertze**

Erribera kalea, 6

Tel./Faxa: 861707

**Galdona**



**burdindegia**

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



**TABERNA**

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



egunera idazten diot. Interneten bidez bidaltzen dizkiot eskutitzak. Nik ez dakit manejatzen, baina mutilak laguntzen dit eta minutu bian han dazke nere hitzak.

**■ Nola ikusten dezu gaurko Zumaia?**

Ondo, oso mejourauta. Lehen askoz zikinagua zegoen dana, lokatza eta hautsa, eta orain txukun-txukun dago.

Nere aita itsasgizona zan, patroia, eta nere ama basarritarra, Endañeta baserrikua. Arraian usaia ezin det hartu ere egin, eta baserrikua berriz asko gustatzen zait, edozein 'Chanel' baino gehio, baina baserriko usaia gustatziak ez du kentzen aurrerapena gustatziak. Aurrerapena beharrezkoa

da, eta Zumaia orain askoz hobeto dagola ikusten det orain dala urte batzutuakin konparauta.

**■ Zumaiari buruzko olerkiak ere izango dituzu, gogoratuko al zeniguke bakarren bat?**

Etorri behar zenutela eta hauxe ateratzia eskatzeko neukan. 'Nere naia' dauka izenburua eta honela esaten du...

*“Ezin geiago biotza daukat  
bere tokitik irten nairik,  
zureganako maitasuna  
aundia bai da, Erri Euzkadi!”*

*Ortze jaio eta azi nintzen  
t'ortxe il nai nuke nik.  
Andre Mari'ren babesean,  
aurrez detala Kantauri!*

*Bere olatuaren zurru-murruak  
bilduko dute nire  
betiko lo gozoa,  
Andre Mari'ren babesean  
aurrez-aurre detala  
Kantauriko itsasoa.”*

60an idatzi nuan, Karakasén.

◀ ANTOKA AGIRRE

**gofi**  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 860959

**Auto-konponketak**  
**ELKAR**

PEUGEOT

Estazioko kalea TEL. 860201

**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko argietan*

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402  
TAILERRA: Estazioko kalea, 24  
Tel. mugikorra: 908 -143409

*gure txokoa*

• taberna •  
kaxuelita eta pintxo ezberdinak  
San Pedro kalea

# euroa erabiltzen jakingo al dezu ?



**Lierni Linazisoro**

Patrikan eramango ditudan euro pila kontutan izanda, moldatuko naiz!



**Juan Mari Errezil**

Bai. Zatitzen eta biderkatzen dakienak jakingo du.



**Inaxi Zearreta**

Ez zan oso zaila izango. Kalkuladora erabiliko dugu eta kitto!



**Esther Angera**

Ez daukat ideiarik nola joango dan, ezta zenbat balioko dun. Ordua iristen denean jakingo de.



**Nerea Roteta**

Hasieran behintzat ez, zeren kontutan hartu behar dira xentimoak eta ohitura hartu arte benetan kostatuko zaigu euroa erabiltzen ikastia.



**Mireia Segura**

Ailatu arte ez dakit.



**Raul Martinez**

Estudiatzen nago, eta orduan jakingo det.



**Enrike Urruzuno**

Ohitu beharko, bestela...

**ERTZ** informatika



ORDENAGAILUAK  
CD-ROM  
INTERNET



*orain beheko plazan!*

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

English School  
**Harvest**

San Jose, 11 bis

Tel. 143334

## Garbia ez da garbitzen duena, zikintzen ez duena baizik

Zumaia Garbia kanpainaren V. edizioa burutu zuten herriko ikasleek maiatzaren 18an

*Joan den maiatzaren 18an Zumaia Garbia kanpainaren bosgarren edizioa burutu zuten gure herriko ikasleek. Kanpaina honen helburua haurrei herria garbia mantentzea denon ardura dela jakinaraztea da. Horrela, ordubetez eta taldeka banaturik, herriko txoko ezberdinak miatu zituzten, jasotako zabor guztia Beheko Plazan biltzeko.*



Behin eta berriro gure gizarteak akats berdinak egiten ditu. Gure kaleak garbitzen dituen zerbitzu bat ordaintzen dugula-eta, nahi adina zikintzeko eskubidea dugula iruditzen zaigu. Aurreko artikulu batzutan esan bezala, bi aldiz ordaintzen dugu: aurrena zikintzeko; gero zikindutakoa garbitzeko. Horretaz jabetzea ez da erraza, eta zailagoa jarrerak aldatzea. Zumaia Garbia kanpaina gure herriko ikasleen artean tradizioa hartzen ari dela esan daiteke, eta oro har ongi ikusia dago ikasle eta hauen gurasoen artean. Baina urtero ez da falta horrelako esaldiak botatzen dituenik: Zergatik garbitu behar ditu nire semeak kaleak horretarako zerbitzu bat ordaintzen badut? Galdera horren atzean informazio falta handia dagoela uste dugu, eta artikulu honek zenbait zalantza argituko dituelakoan gaude.

Abia gaitezen beste galdera honetatik: Zergatik ordaintzen dugu garbiketa zerbitzu bat? Erantzuna erraza da, zikintzen dugulako, alegia. Beraz, ez dugu ordaintzen zikindu ahal izateko, alderantziz baizik. Zikintzen dugulako ordaintzen dugu. Gutxiago zikinduz gero, gutxiago ordaindu behar. Hori argi dago. Baina zer egin dezakegu

gutxiago zikintzeko? Argi dago ohiturak aldatu behar ditugula, eta hori lortzeko modu bakarra heziketa da. Zein da bizikletaz ibiltzen ikasteko modu bakarra? Ba, bizikletaz ibiltzen. Hortaz, ez litzateke hain harrigarria izan behar haurrak zaborra jasotzen jartzea -urtean ordubetez- arazo honetaz jabetu daitezen.

### Zaborra jasotzea baino zerbait gehiago

Baina Zumaia Garbia kanpaina zaborra jasotzea baino zerbait gehiago da. Aurten, Zumaia Udalak eta Arazi Taldeak antolaturiko kanpaina honetan 520 ikasle hartu dute parte. Herria zati ezberdinetan banatu zen. Talde bakoitzari Zumaia mapa bat eman zitzaion eta bertan zehazten zen bakoitzari miatzea zegokion eremua. Horretaz gain, fitxa bat osatu behar izan zuten zenbait galderekin. Gehien aurkituriko zabor mota aipatu behar zuten, eta nork botatakoa izan zitekeen zehaztu (adin eremua) -ikus taula-. Horretaz gain, Zumaia puntu beltzak bilatzeko eskatu zitzaion, hau da, non falta diren zakarrontziak. Azken galdera honetan jasotako erantzun batzuk: Gurutze Gorriaren

**Huntza, o.k.**



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



**BALEIKE**

1998ko ekaina, 47. zenb.



Erribera kalea Tel. 861523

atarian, Ikastola inguruko txokoak, taberna inguruko txokoak, Aita Mari eta Alaiko patioetan, Institutu inguruan, kaian, paol bidean, Parroki atarian, bolera aurrean,...

**“Ez dugu ordaintzen zikindu ahal izateko, alderantziz baizik. Zikintzen dugulako ordaintzen dugu”.**

Ikasleak goizeko 9,30etan hasi eta 10,30ak bitartean jardun zuten herriko bazterrak garbitzen. Horretarako, zabor poltsak banatzeaz gain, plastikozko eskularruak eta kamiseta bana eman zitzaizen. Zabor bilketa amaitu zutenean, Beheko Plazan elkartu eta zabor poltsa guztiak pilatu zituzten, hesi batez inguratuz, jendeak ikus zezan zenbat zabor jaso zuten ordubeteetan.

Behin Beheko Plazan, zaborren kudea-ketarekin zerikusi duten zenbait kontzeptu lantzeko aukera izan zuten, bertan zeuden panelen bidez. Birzikla-penaren garrantzia gogorarazi zitzaizen,

eta hondakin bakoitzak bere edukiontzia duela. Eguneroko zabor poltsan botatzen duguna aztertu zen, eta gaur egun gure zabor poltsak egiten duen bidea ere bai. Zumaiarrok sortzen dugun zaborrarenatik zenbat ordaintzen dugun ere adierazten zen bertan: 25 milioi pezeta urtean. Gutako bakoitzak egunean kilo bat sortzen duela kontutan izanda, kontuak atera eta ikusiko duzue urtean zenbat zabor tona sortzen duen gure herriak.

Kaleko lana amaituz, ikasleak euren geletara itzuli eta bertan bakoitzak marrazki bat egin zuen. Marrazki hauen artean bat aukeratu da eta datorren urteko kamisetan joango da. Aukeraturiko lana Oier Azkue Waliñorena izan da (5. mailakoa).

Guzti honi buelta eman nahi badiogu, heziketa da gure armarik baliotsuena. Heziketa haurrentzat, baina baita ere nagusientzat. Gogoratu, zikintzen ez dena, garbitu beharrik ez! (eta gainera, merkeagoa).

◀ **ARAZI TALDEA**



BILDUTAKO ZABOR MOTA	NORK BOTA DUELA USTE DUZU?			
	0-14 URTE	15-30 URTE	31TIK AURRERA	GUZTIRA
<b>PAPELAK</b>	9	9	9	27
<b>ZIGARRO HONDAKINAK</b>		17	12	29
<b>PEPITA AZALAK</b>	6	6	2	14
<b>TXAKURREN KAKAK</b>	3	4	4	11
<b>GOXOKI ZORROAK</b>	18	4	2	24
<b>TXIKLEAK</b>	3	3		6
<b>LATAK</b>	4	10		14
<b>PLASTIKOAK</b>	1	1	1	3
<b>TAPOIAK</b>	1			1
<b>BURNIA</b>			1	1
<b>ALUMINIOZKO PAPER ZATIAK</b>	1	1	1	3

OHARRA: zenbakiak erantzun hori eman duten taldeen kopurua adierazten dute.

**ilarzi**  
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324

**ILEAPAINDEGIA**  
**TRUITZ**

San Telmo, 12  
Tel. 860760



aupa atleti !!  
Dedió.  
Ez gaituk makalak euskaldunak!!

Ssshhh. Izaki Unizelularra (edo I.U.) txiste bat kontatzen ari dek eta...



Ze txiste ta ze letxe.. ez dek ezer ulertzen eta

klaro! Umore japonesa dek eta . beste kultura bat dek..



Aaaaaaa!  
Eta I.U.-k noiztik zekik ba japoneses?




Ez, beak ere ez dik txistea ulertzen. baina grazia-kin kontatzen dik



Aah! Hori bai. Hori dek inportantia

Shhh, egintzak parre, bukatu dik eta..





## 650 orrialdeko historia

Zumaiako historia jasotzen duen liburu berri bat kaleratuko da datorren hilean

*Datorren uztailaren 3an Zumaiaren historia biltzen duen liburu berri baten aurkezpena egingo da. Liburu hau, Aranzadiko Lourdes Odriozola historialariak urte t'erdiz eginiko lanaren ondorioa da, eta bertan luze eta zabal jasotzen dira gure herriko historiaren gai eta gertakizun aipagarrienak. Zumaiak 650 urte bete dituen honetan, gure arbasoen gainean gehiago jakiteko aukera emango digu lan berri honek.*



*Lourdes Odriozola erreteriarra historialaria da, eta Aranzadi Elkartek eskaturik idatzi du Zumaiaren historia jasotzen duen liburu hau. Bere ikerketa gehienak itsasoari lotuak egin ditu orain arte. Bere tesia Gipuzkoako XVIII. mendeko untzigintzari buruz egin zuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik dago argitaratua. Duela bost urte, Eusko Jaurlaritzak eskaturik, Zumaiako portuari buruzko lan bat burutu zuen -oraindik argitaratugabea-. Besteak beste, Eusko Ikaskuntzarentzat egin izan du lan, eta Erretereriako historia ere aztertu du.*

Egia esan, Lourdesek idatzi duen liburuak ez ditu 650 orrialde, baina ez dabil urruti, ia 600 orrialdeko lana osatu baitu. Egileak berak kontatu digunez, Zumaiako historiari buruzko liburu hau Zumaiako Udalak Aranzadiri eginiko eskakizunaren ondorioa da. "Zumaiako Udalak bertako historia jasoko zuen liburu baten proiektua eskatu zion Aranzadi Elkarteari. Hauek, niri eskaini zidaten lan hau, batez ere, Zumaiako artxibategia ezagutzen nuelako aurretik eginiko lan bati esker. Hortxe hasi zen dena".

Lan mordoa zuen aurretik, baina artxibategia ezagutzea laguntza handia izan zen lehen pausoak ematerakoan. Berak nahikoa argi zuen nolakoa

liburua nahi zuen, zein gai jorra zitezkeen eta zeintzuk ez. "Nik banekien gutxigorabehera zer zegoen artxiboan; banekien nondik jo zitekeen liburua egituratzerakoan. Artxiboa oso aberatsa da, eta nik argi nuen zeintzuk ziren landu beharreko gaiak. Ideia hauekin proposamen bat egin nuen. Askotan proposamenak ezin dira bete oztopoak gaindiezinak direlako, baina kasu honetan hasieran eginiko eskema gauzatu da liburuan".

### Bederatzi gai jasotzen ditu liburuak

Lourdesek gaika egituratu du bere liburua, eta bederatzi ataletan banatu du. Horrela azaldu dizkigu berak: "Liburua ez nuen mendez mende

**ITSASKI**  
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 143058

**ITSY-BITSY**  
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan  
Cambridgerako azterketak  
Basadi, 2 Tel. 862373

*ispaindezia*  
**I Z E T A**  
Urumea, 6 Tel. 862083

egituratu nahi. Nahiago izan dut gai bat hartu eta historian zehar izan duen bilakaera azaldu, bere ibilbidea, hastepenetatik 1960. urtera arte. Aukeraturiko gaiak honako bederatzi hauek izan dira: Noiz eta nola sortu zen herria; inguruko beste herriein izandako istiluak; legeak, ordenantzak eta aspektu politiko batzuk, besteak beste, alkateen zerrendak; urbanismoa, hau da, herria nola bilakatu den denboran zehar; erlijioa; azpiegiturak, hiru gai nagusitan sailkatuak: portua, bideak eta zubiak, eta trenak; ekonomia, eta batez ere merkataritza eta untzigintzaren garrantzia; Zumaiaiko arteari buruzko errepasoak; eta azkenik festak. Azken atal hau bereziki erakargarria iruditzen zait. Bertan ikusten da nola zumaiarrek, turismoaren garrantziaz oharturik, udako festak antolatzen hasi ziren kanpotarrak erakartzeko”.

**“Idazten hasi aurretik, ezinbestekoa da ulertzea zergatik garai bateko zumaiarrek idatzi zuten dokumentu jakin bat, eta zergatik modu konkretu horretan”**


Bi izan dira bere datuak biltzeko erabili dituen iturri nagusiak: artxibategiak eta aurrez idatzitako liburuak. “Zumaiaiko artxibategia izan da nire iturri nagusia”, azaltzen digu, “baina beste hainbat artxibategi ere aztertu dira, Gipuzkoa, Euskal Herri zein estatu mailakoak. Eta artxibategietan

orduak sartzeaz gain, liburu asko irakurri behar izan ditut, izan ere, askotan ezinezkoa baita dokumentu konkretu bat lortzea. Orduan ezinbestekoa da besteek eginiko lanetara jotzea. Gainera, zenbait gertakizun ezin dira ulertu kontestua ezagutu gabe eta hori ere aztertu beharra dago”.

### **Lanaren zatirik gogorrena, idazten hastea**

Lourdeseak 18 hilabete behar izan ditu lana hasi eta amaitzeko. Horietatik bederatzi, Zumaiaiko Artxibategian sartuta eman ditut, bertan bilduta dauden dokumentuei ahalik eta zuku gehiena atera nahirik. “Artxibategiko lanak denbora asko kentzen du, baina ezinbestekoa da. Azken finean, orduan jasotzen dituzu gero erabiliko dituzun datuak. Nik bederatzi hilabete eman nituen hemen egunero ordu asko sartzen, baina, egia esan, ordu asko aurreztu nituen lehenik ere ezagutzen nuelako. Zumaiaiko portuari buruz egina dut lan bat Eusko Jaurlaritzarentzat -oraindik argitaragabea-, eta orduan sartu nituen orduak oso baliagarriak izan zaizkit lan honetarako. Bestela, ezinezkoa litzateke lan hau urte t’erdian amaitzea”. Ahalik eta datu gehien biltzeko Lourdesek artxibategian dauden ia dokumentu guztiak aztertu ditut.

Behin informazioa bilduta, lanaren alde zailena dator, idazten hastearena. Horrela azaldu digu Lourdesek arazoa zertan datzan: “Dudarik gabe, idazten hastea izan zen lan zailena. Azken



Liburuaren portada

finean, artxibategiko lana ordu kontua baino ez da. Behin informazioa biltzen duzunean, antolatu eta sailkatu egin behar da, fitxak atera, borradoreak egin... hau da, datu mordo horri etekina atera. Idazten hasi aurretik, ezinbestekoa da ulertzea zergatik garai bateko zumaiarrek idatzi zuten dokumentu jakin bat, eta zergatik modu konkretu horretan. Orduko zumaiarren barnean sartu behar zara, beraien egoeran jarri, euren kezak eta bizimoduak ulertu, eta hori lortu ondoren, orduan hasi idazten. Hori izan da zailena”.

### **Zumaia aipatzen duen lehen dokumentua, 1204koa**

Hainbeste orduko lanean, harribitxirik aurkitu duen jakin izan nahi genuen. Lourdesek baiezkota eman zigun. “Duela gutxira arte, Zumaia aipatzen zuen dokumentu historiko zaharrena 1292koa zen. Hain zuzen ere, Erregeak Santa Mariako monastegia Orregako monastegiaren esku utzi zuela jasotzen duen dokumentua. Baina, duela gutxi beste dokumentu

Joseba Ossa

## ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana  
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306  
E-mail: bakun@encomix.es

julio curiel



Gizonezkoentzat  
ileapaindegia

Erribera kalea, 23



Loredenda  
JEMAR

LANDAREAK . LOREAK  
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1

Tel. 860375

zaharrago bat agertu da Iruñean, 1204koa. Dokumentu hau Aita Santuaren bula bat da. Bertan, Aita Santuak Gipuzkoan zituen jabegoen zerrenda agertzen da, eta tartean "Santa Maria de Zumaya" aipatzen da. Horrek esan nahi du 1204. urtean jadanik bertan zegoela monasterio hori".

***"1204ko dokumentu batean, Aita Santuak Gipuzkoan zituen jabegoen zerrenda agertzen da, eta tartean 'Santa Maria de Zumaya' aipatzen da. Horrek esan nahi du 1204. urtean jadanik bertan zegoela monasterio hori".***

Santa Mariako monasterio horrek eztabaida eta hipotesi ugari sortu ditu gure herriko historia landu eta aztertu duten egileen artean. Hipotesi onartuenak eta zabalduenak dio Santa Mariako monasterio hori gaur egun San Pedroko parrokia dagoen toki berean zegoela. Lourdes bat dator hipotesi honekin. "Azkenaldian dokumentazio berria agertu da Iruñean, eta ia aditu guztiak bat datoz hipotesi horrekin. Egia da Martinez Kleisserrek bere liburuan beste hipotesi bat jorratzen duela, baina esan daiteke Santa Mariako monasterio gaurko Parrokia dela, edo toki berean zegoela". Dena den, ez dago hori baieztatzen duen aztarna arkeologikorik, eta historialariengan fedea izatea baino ez zaigu geratzen.

Izan ere, Zumaiako artxibategia aberatsa bada, ezin berdina esan herrian aurki daitezken aztarna arkeologikoei buruz. Egia da eliza bera oso zaharra dela -akaso Santa Maria monasterioko zenbait elementu izan ditzake-, eta badirela dorretxeak eta ermitak, baina lehen urtetako Zumaiaren arrastoak denborak irentsi ditu.

### **Krisiei aurre egiteko ahalmena**

Gure herriaren historia gorabehera handiko historia omen da. Lourdesek, zumaiarrek gorabehera horietatik onik ateratzeko izan dugun ahalmena nabarmendu du. "Zumaiako historia kontraste handikoa da. Une askotan herria goian egon da, gailurrean, politikoki zein ekonomikoki, baina beste batzutan krisi larriak jasan ditu, egoerak aldatu egin direlako. Baina historian zehar ikusten da nola herriak aurrera egiten jakin izan duen une gogorrenetan. Irtenbideak bilatu eta aurkitu ditu une zailetan. Zumaiarrek egoera txarrak biratzen dakizue; egindako akatsetatik ikasi eta etorkizuna bultzatzen".

***"Historian zehar ikusten da nola herriak aurrera egiten jakin izan duen une gogorrenetan. Irtenbideak bilatu eta aurkitu ditu une zailetan. Zumaiarrek egoera txarrak biratzen dakizue"***

Zumaiak 650 urte hauetan izan dituen gorabehera horietaz galdeturik, Lourdesek XVI. mendea jotzen du une

onenatzen. "Une onena, dudarik gabe, XVI. mendea izan zen, merkataritza eta untzigintzaren eskutik. Bi zutabe hauek sendo egon direnean, Zumaiak sasoi onak bizi izan ditu". Zumaiak Espainiak munduan zuen nagusitasunaz baliatu zen, merkatal bideetan sartuz. Baina une gogorrenak, XVI. mendeko loraldiaren ondoren etorri ziren, hain zuzen ere. "Zumaiak XVII. eta XVIII. mendetan bizi izan ditu une latzenak, eta hori ulertzeko Espainiak eta Europak bizi zuten egoera ulertu behar da. Estatua gudetan sarturik zegoen. Armada Garaitezin zelakoa galdu zen, eta horren ondorioz Zumaiako unti jabe askok euren untiak galdu zituzten eta ez zuten dirurik jaso. Gero, Estatua bere unti propioak egiten hasi zenean Gipuzkoan, Orion eta Pasaian egin zituen gehienak. Zumaiak ez zuen bultzada hori izan, unti handiak zirelako eta ez zirelako hemengo portuan sartzen", azaltzen digu Lourdesek. "Gainera", jarraitzen du, "Europa osoan guda zen nagusi, eta ezinezkoa zen merkatal harremanak mantentzea itsasuntziz. Gauzak horrela, Zumaiako ekonomiaren bi zutabeak galdu egin ziren". Zumaiak ez zen zulo beltzetik aterako XIX. mendearen azken zatira arte. "XIX. mendearen amaiera ere ona izan zen,

### **"Zumaiako artxibategia oso aberatsa da"**

Zumaiako artxibategia izan da bere liburuaren informazio iturri nagusia, eta majina bat ordu sartu ditu bertan Lourdesek dokumentu zaharrei hautsa astindu eta mamia atera nahirik. Hortaz, ederkidaki zein egoeran aurkitzen den gure herriko testigantza gordetzen duen paperezko altxorra. "Zumaiako artxibategia, dokumentu aldetik oso aberatsa da. Nik esango nuke kostaldeko herrien artean Hondarribikoa bakarrik dela aberatsagoa. Eta egoerari buruz, esan behar dut oso ongi aurkitu dudala azken bisitaldi honetan. Nik duela hamar urte ezagutu nuen lehen aldiz, eta esan daiteke orduan ez zegoela artxibategirik. Dokumentuak Udaletxean zeuden, Alkate ordearen bulegoko bitrina batzutan gordeta. Ni bertara joaten nintzen behar nuenaren bila, baina Alkate ordeak norbait jaso behar bazuen bisitan, ba nik alde egin beharra nuen, dokumentua besapean hartuta", gogoratu du Lourdesek. Baina ondotik gauzak pixkanaka hobetuz joan dira. "Bigarren aldiz, duela sei urte etorri nintzen. Jadanik, artxibategi historikoa antolatua zegoen, baina ez zekiten zehazki kaxa bakoitzean zer zegoen. Zati bat Forondan zegoen, baina bi zati oso garrantzitsuak Udaletxeko areto nagusian eta aldameneko etxean zeuden, dena nahasturik. Gaur egun berriz, 1960ra arte ongi antolaturik dago, eta hortik aurrerako artxibategi administratiboa orain ari dira txukuntzen. Beraz, esan behar dut azken epe honetan oso ondo aurkitu dudala", baieztatu digu.



1883tik aurrera. Urte horretan estatuak Zumaiako portua estatu mailako interesekoa izendatu zuen, eta hortik aurrera azpiegitura guztiak garatu ziren, eta merkataritza eta untzigintza bultzatu. Gainera, ezin da ahaztu 1881an mugak barrukaldetik kostaldera eraman zirela, eta horrek mesede handia egin zion Gipuzkoari eta Zumaiari. Orduan hasi zen garatzen zementuaren industria. Merkataritza berpiztu egin zen azpiegitura berriei esker, eta batez ere, portuan egin ziren lanei esker. Egoera honek 1960ra arte irraun zuen. Hortik aurrera krisia hasi zen, ekonomiak merkatu zabalagoa eskatzen zuelako. Hor berriro agertu zen Zumaiak beti izan duen arazo handi bat: bere portua. Sakonera gutxikoa da eta irteera arriskutsua izan du beti. Hor itsasuntzi asko galdu dira”.

Herri batek bere historian zehar izan dituen gorabehera guzti horien berri izatea garrantzitsua da etorkizuna samurragoa izan dadin. Lourdes Odriozolak etorkizun oparoa opa dio Zumaiari, “kalean zenbat ume dabilen ikustea baino ez dago!”, dio irribarrez. Zumaian zumaia sentitu da, eta hori garrantzitsua da beretzat. “Oso gustora egon naiz Zumaian lanean, bai artxiboan, bai kalean. Herriko jendearekin goxotasun berezi bat nabaritu dut, eta horrek une txarretan aurrera egiteko indarra eman dit. Nire bihotzean zumaia ere sentitzen naiz”. Ez da gutxiagorako, gure historiari buruz edonori lezioak emateko moduan baita!

◀ **GORKA ZABALETA**

*Jesuskoa  
Taletxea*



Tel. 861739  
OIKIA  
ZUMAI A



**HARATEGIA URDAITEGIA**

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



**KABI**  
TABERNA - ZUMAI A  
Tel. 143379



**kalari**

J \* Eguneroko bazkaria  
A \* Pintxo eta bokatak  
T \* Koadrilentzako menu bereziak  
E \* Kazuelitak eta plater konbinatuak  
X  
E  
A

Erribera kalea, 16  
Tel. 862517

**KUKUTZ**  
serigrafia

· kamisetak  
· txiskeroak  
· paperezko poltsak

Tel. 860569  
Baltasar Etxabe, 7

## Iazkoa hobetu nahian

Arraun Taldeak ilusioz beterik ekingo dio traineru denboraldiari



*Ekainean sartu gara eta dagoeneko lehenengo traineru estropadak jokatzen hasiko dira. Urtero bezala, Zumaiako "Telmo Deun"-a ere hortxe izan go dugu lehia bizian beste untzi guztiekin. Aurreko urtean txukun aritu ziren Euskal Ligan sartuaz eta Errioxan ere bandera bat irabaziz. Aurten, Joseba Aristi entrenatzailearen esanetan, "iaz lortutakoa hobetzea dugu helburu".*

Urte dexente igaro dira Zumaiako Arraun Taldeak 80ko hamarkada hasieran lortutako emaitza paregabe haietatik. Besteak beste Kontxako bi bandera eskuratu zituzten. Dena den, urrezko garai haiek joan dira eta hain ondo ibili ez arren, urtero-urtero Zumaiako traineruak uretan jarraitu du, hobeto edo okerrago, baina beti ere duintasun osoz.

Azken urteetan bigarren maila batean mantendu da, baina iaz, bandera bat irabazteaz gain, Euskal Ligan talde onetsuenekin aritu zen. Helburu nagusia bete zuten eta aurten ere horixe izango da, Joseba Aristi entrenatzailearen hitzetan, beren asmo nagusia: Euskal Liga horretan sartzea.

Aristi itxaropentsu agertzen da aurten egin dezaket denboraldiarekin. "Iaz baino hobeto ibiltzea espero dugu, baina horrek ez du esan nahi punta-puntan izango garenik. Ametsik ez dugu egiten eta Zarautz eta Getaria

bezalako taldeen parean ibiliko bagara gustora egongo nintzateke".

22 arraunlari eta lau patroik osatzen dute taldea, aurreko urtean guztira 17 bakarrik zirenean. "Honek lana egiteko marjen handiagoa ematen du. Erraztasun eta lasaitasun gehiago. Alde honetatik, aldaketa nabarmena izan da". Aurpegi berrien artean, Gorka Osa "Kaldes", Jon Lafuente "Baxa", Anjel Etxaniz, Felix Zubizarreta azpeitiarra eta patroilanean, Arkaitz Romaneli ditugu. Gehiengoak zumaiarrak, baina badira Azpeitiako bi arraunlari, zarauztar bat eta Gasteizko beste bat ere. Jende berri honek untziari sendotasun handiagoa emango diola uste du entrenatzaileak.

Kontxako bandera aitatzea derrigorrezkoa da denboraldia hastear dagoen bakoitzean. Joseba Aristik urruti ikusten du oraindik estropada hori. "Hori baino lehen beste hainbat bandera daude tartean eta hauetan ahalik eta hobekien ibiltzea da gure

lehenengo nahia. Kontxa hurbiltzen doan heinean ikusiko dugu zer gertatzen den, baina ordurarte ez dugu obsesionatu nahi".

Euskal Liga horretan beren burua sartuz gero, untzi indartsuenekin jardungo dute eta honek zumaiarrei beren mailarik hoberena ematea exijituko die. "Badakigu goi mailako estropadetan gauza handiegirik egiteko aukerarik ez dugula, baina ahulagoetan gauzak ondo egiten saiatu behar dugu. Gure asmoa ahalik eta mailarik onena ematea da".

Denboraldiari dagokionean, Aristik ez du pentsatzen orokorrean ezusteko handiegirik egongo denik. "Betikoak izango dira muturrean. Oriok seguruenik talde gogorrena izaten segituko du. Pasaitarrak hor egongo dira, Hondarribia eta galziarrak ahaztu gabe. Ez zait iruditzen aldaketa handiegirik egongo denik aurten".

◀ IGOR URANGA

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

- \* Eskola eta bulegorako materiala
- \* Enkoadernazioak
- \* Fax publikoa
- \* Aldizkari eta opariak

KÉRASTASE PARIS

Tel. 143278

## Udako fulbito txapelketa hasi da

### 30 taldek hartuko dute parte aurtengo edizioan

Aurten ere eta ekaina iristearekin batera, Zumaiaiko Udako Futbito Txapelketa martxan jarriko da. Aurtengo honetan ere ez du hutsik egingo eta ekainaren 6an hasita, uztailaren 30a bitartean luzatuko da.

Torneo honetan, herriko taldeez gain, kanpotik ere hainbat partehartzaile hurbilduko dira jokatzera. Zarauztik, Oriotik, Azpeititik, Zestoatik, Getariatik, leku askotatik, gero eta

oihartzun handiagoa duen txapelketa honetara.

Neskentzat txapelketa bat eta mutilentzat beste bat jokatuko da. Dena den, aipagarria da, emakumezkoen txapelketa pixka bat beranduago hasiko dela. Zehazki, hasiera ekainaren 17an emango diote.

Txapelketak hiru fase izango ditu. Lehenengo biak ligaxka sistemaz jokatuko dira, talde guztiak elkarren

aurka jokatuz. Hirugarren fasea berriz, kanporaketa sisteman burutuko da.

Iaz, nesken mailan, Mozkor taldea izan genuen txapelkun, finalean Propiyori irabazi ondoren. Gizonezkoen txapelketan aldiz, Kopan, Txanela talde zarauztarra izan zen irabazlea eta Gure Txokoa bigarren. Ligan, txapelketa Getariako Kaia Jatetxeak eskuratu zuen finalean Uztarri Jatetxea mendean hartu ondoren. ◀



## Alberdi-Enbil Espainiakotxapelkun

Luis Mari Alberdi eta Gotzon Enbil puntista zumaiarrek osatutako bikoteak Espainiako Txapelketa irabazi du Palentzian. Maiatzeko azken asteburuan hiri horretan jokatuako final erdietan eta finalean, zumaiarrek oso maila ona erakutsi zuten eta bi norgehiagoka gogor jokatu ostean, txapela eskuratzea lortu zuten.

Finalaurrekoetan Luis Marik eta Gotzonek Egiguren 2. eta Barrondo

izan zituzten aurrez aurre eta zumaiarrek 35-26ko emaitzarekin nagusitu ziren. Finalean aldiz, Berraondo eta Erkiaga zituzten arerio eta partidu osoan abantaila dexenterekin izan arren, azkenean neurketa apur bat konplikatuz zitzaizen zumaiarrei. Dena den, azkenean 35-31 irabazi zuten eta honela aurtengo profesional mailako Espainiako txapelkun berriak bilakatu dira. ◀

## Itxas-Gainek bikain jarraitzen du

Garaipenak bata bestearen atzetik lortzen jarraitzen dute Zumaiaiko Itxas-Gain piraguismo taldeko palistak. Maiatzaren 17an "Sevillako Hiria" deituriko piragua festa burutu zen hiri andaluziar horretan. Postu onak lortu zituzten maila eta modalitate

guztietan, baina azpimarratzekoa batez ere kadete K-4ean lortutako garaipena. Iñaki Vita, Juan Mari Azpillaga, Imanol Atorrasagasti eta Jon Iñaki Ispizuak osatutako untiak ez zuen areriorik izan lasterketan.

◀ IGOR URANGA

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA

herea  
Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



GILANO

Paperdenda LIBURUDENDA

Aldizkariak

Fotokopiak

Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7

Tel. 143191



Inpernupen dagoen paretan hau jende askok erabiltzen du eskalada egiteko. Argazkia. Jonathan Bernal

## Zumaiako "Joxemitea" ekipatzeko laguntza behar da

Zumaiar askok ez dakiten arren, Itzurungo hondartza eta Inpernupeko zonaldearen artean, eskalatzeko aukera politak eskeintzen dituen paretan eder bat dago, Zumaiako "Joxemite" izenez ezagutzen dena. Duela zenbait egun, zintzilik egotea gustokoa duten zenbait lagunek Joxemite ekipatzea erabaki dute, hau da, arriskurik gabe eskalatu ahal izateko beharrezkoak diren seguruak jartzea.

Era honetan, edozein joan ahal izango da leku honetaz gozatzen. Lehen

urratsa, paretan garbitzea da, sastrakak eta harri solteak kendu... Lan honetan dagoeneko hasi dira. Ondoren berriz, anklajeak ipiniko dira eta hau da hain zuzen ere, arazo handiena, material hori erosi egin behar dela alegia.

Erakunde publikoek dirulaguntzarik eskaini ez dutenez, bakoitzaren patrikatik ordaintzea erabaki da eta bildutakoarekin, zati bat ekipatzea. Honetarako, bakoitzak 2.000 pezeta jarri ditu. Diru pixka bat gehiagorekin, paretan guztia eskalatzeko behar bezala


egokitzea posible litzateke. Arrazoi honengatik, zumaiar guztiei eskaera bat egiten zaie dirulaguntza txiki bat eman dezaten.

Honela, eskalatzeko gune paregabe batetaz disfrutatzeko aukera legoke. Zentzu honetan, erantzun baikorregia izatea espero ez duten arren, ekimen honen bultzatzaileek kontu korronte bat ireki dute norbaitek aportazioren bat egin nahi izanez gero. Joxemite ekipatzeko kontua: Euskadiko Kutxa edo Caja Laboraleko 037.1.04288.3 zenbakia. ◀



Arrain eta mariskoak  
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 862309



AIZPURUA

LIBRERU  
DENDA

*opariak*

Aita-Mari auzategia, 17  
Tel. 861569

**AIZMAN-KOS S.L.**

**SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa  
Tel. Faxes: 148124  
20740 IRAETA- ZESTOA

**KONCE**

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**

Tel. 862347 - 861001



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

**Rosi**  
garbiketak

\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 861670



## Kadete mailako Pulpo ZKP taldeak agur esan dio Espainiako txapelketari

Ezin izan du Kadete mailako Pulpo ZKP taldeak Espainiako Txapeletako lehenengo fasea gainditu. Abel Yeregiren mutilak hiru taldek osatutako multzo batean zeuden eta hiru haueetatik lehen postuan geratzen zenak, hilabete honetan Mallorcan jokatu den azken faserako txartela lortuko zuen.

Lehen ligaxka hau maiatzean jokatu zen Vigon. Zumaiarrek lehenengo

partiduan Pontevedrako Teucro taldearen aurka jokatu zuten eta bertan garaipena lortu zuten, nahiz eta partidu eskas xamarra egin. Hurrengo egunean Santanderko Salesianos taldea izan zuten arerio. Neurketa gehiena kontrolpean izan ondoren, azkenean urduritasunagatik edo entrenatzaileak esan duen bezala, "esperientzia falta-



gatik" galtzaile irten ziren. Horrela, Espainiako Txapelketatik kanpo geratu dira. Dena den txalogarria da talde honek aurten egindako lana. Denboraldi osoan bi partidu besterik ez baititu galdu. ◀

## Txirrindular zumaiarral ezin hobeto

Beristain taldeko txirrindulari zumaiarrek denboraldi txukuna egiten ari dira. Maiatzaren 16an Zarautzen korritutako Gipuzkoako Txapelketan, kadete mailako Ander Odriozolak garaipena lortu zuen. Denboraldi

honetako bigarrena da gainera, aurrez Hernaniko lasterketan ere irabazle irten baitzen. Proba guztietan aurreko postuetan amaitu du eta hil honetan bertan Euskadiko txapelketan parte hartuko du.

Bestalde, jubenetan Gaizka Gonzalez zumaiarrek ere Donostiako Egia auzoan korritutako lasterketa irabaztea lortu du. Zumaiako txirrindularitzak etorkizuna baduela azaltzen ari dira txirrindulari gazte hauek. ◀

## Pala txapelketa ekaina bukaeran amaituko da

San Pedro Saria Pala Txapelketa bere azken txanpan sartuko da hilabete honetan. Hemendik gutxira final laurdenak izango dira eta azken partiduak, finalak, ekainaren 26an jokatu dira.

Hasieratik iragarri zen bezala, oreka da orain arteko txapelketako ezaugarri nagusia eta modu honetan jarraituko du amaiera arte. Gizonezkoetan ez dago besteen gainetik nabarmentzen den bikoterik eta

favoritoak bat baino gehiago dira.

Emakumezkoetan, aldiz, egoera ezberdina da. Hemen, badirudi, Aizarnazabalgo Gabarain ahizpak eta Aizpurua-Egaña bikote zumaiararen artean egongo dela txapela. Dena den, ikusi egin behar beste norbait ustekabekoren bat emateko gai den.

◀ IGOR URANGA



OPTIKA ZUMAIA



ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

INMOBILIARIA



BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

## ZINE FORUM



### El laberinto rojo

(1998)

Zuz: Jon Avnet

Akt: Richard Gere, Bai Ling

HAU EZ DA ZINE-FORUM-EKO PELIKULA. BESTELAKO PELIKULA BAT DA!!!

Uda garaian gertatu ohi den bezala, Hollywoodetik bidaltzen dizkiguten filmeen maila benetan exkaxa da. Erakusgarri bezala, Aita Mari zineman botatzeko asmotan diren filmeak ikustea besterik ez dago: *Anastasia*, *El hombre de la máscara de hierro*, *El laberinto rojo*... Zerbaitetaz idaztekoan azken honetaz kritikaxo bat egitea erabaki dut. Eta zergatik? Ba hona hemen zenbait arrazoi...

1.- Jon Avnet, zuzendaria. Hamarkada hasieran *Tomates verdes fritos* filmearekin debuta egin zuenean, denboraaldiko sorpresa izan zen, zuzendari ezezagun baten lehen lan erakargarria baitzen Estatu Batuetako hegoaldean oinarrituriko melodrama sensible hura. Ondoren Kevin Costner, Robert Redford eta Michelle Pfeiffer-en eskuetan erori zen. Lehenarekin *The war* filme exkaxa egin zuen. Ondoren beste biek *Intimo y Personal* pelikula jasan ezina. *El laberinto rojo* bere azken lana da, eta esan daiteke, dudarik gabe, behea jo duela. Ondorengo filmea oraingo hau baino hobea izatea ez da zaila izango, txarragoa egitea ezinezkoa baita.

2.- Richard Gere. Hasera batean, zuzendari bikainekin lan egin zuen aktore iparramerikarrak: Richard Brooks, Terrence Malick, Robert Mulligan, Paul Schrader... *Oficial y caballero*-ren ondoren Ameriketako sex-symbola bihurtu zuten, eta horren ondoren, Coppolaren *Cotton club* izan ezik ez du ezer dexenterik egin. Azken urteotan ezgunagoa egin da budismoaren "rolloarengatik" edo Cindy Crawfordekin ezkondu zelako.

3.- Gaia: Txina eta giza eskubideen zapalkuntza. Gere-k Txinan dabilen estatubatuar baten papera egiten du. Jeneral baten alabarekin oheratu ondoren, hau hilik agertzen da. Ondoren Gere gizarajoaren eskubideen zapalkuntza eta kalbarioa erakusten digu filmeak. Jakina da Richard Gere-k Txinarekin zerikusia duen edozer gortatzen duela, hauek Tibeta beraien eskuetan baitute, baina horrek ez dio ematen bere pentsatzeko era mundu guztiari aurpegiatzeko eskubidea. Azken finean *El laberinto rojo* hau filme panfletario bat besterik ez da, "Guda hotza"ren garaian amerikarrek egiten zituzten propagandako filme haien antzerakoa.

## Irakurketarako aukerak

### Euskaraz

*Aluma*  
*Haxixaren poema*  
*Plastikozko loreak erregearentzat*  
*Groenlandiako lezioa*  
*Gure barria 1975*



Guy de Maupassant  
Charles Baudelaire

Xabier Montoia  
Bernardo Atxaga  
Xabier Mendiguren

### Gaztelerez

*A salto de mata*  
*El otro barrio*  
*Negra espalda del tiempo*  
*Extraño en el paraíso*  
*El café de Qúshtumar*



Paul Auster  
Elvira Lindo  
Javier Marías  
Terenci Moix  
Naguib Mahfuz

### Haurrak/Gaztetxoak

*El secreto de Ani* Meritxel Margarit/Xavier Ramiro  
*Oporrak sukaldean* Miguel Angel Mendo  
*Marraskilo detektibea* Jose Francisco Viso  
*Saturna* Joxantonio Ormazabal/Jose Belmonte  
*Nire kalea* Pedro Alberdi



**TALAI-MENDI**  
DEKORAZIOA

\* Eskaiola  
\* Pintura  
\* Pladur  
\* Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35  
Tel. 929-550574

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 143089



Artadi auzoa  
Tel. 862189

# ekaina

## MUSIKARAKO HASTAPEN IKASTAROKO IKASLEEN KONTZERTUA

► Ekainaren 11n, arratsaldeko 6etan,  
Ubillosen

## TXORONPIO, PANTXI ETA PANTXO PAILAZOAK

► Ekainaren 14n, arratsaldeko 6etan,  
Eusebio Gurrutxaga plazan

## HITZALDIA

### Emilio Lopez Adan "Beltza"

Gaia: "Euskal nazioa, Batasuna eta Aniztasunaren artean"

► Ekainaren 18an, osteguna. 7.30etan.  
Oxford aretoan

## KANTALDIA

### JABIER MUGURUZA bere taldearekin.

"Aise" diskoaren aurkezpena

► Ekainaren 19an, ostirala. Gaueko  
10.30etan.  
Oxford aretoan

## "GANBARA MUSIKA KONTZERTUA"

### Zumaiako musikariek eskeinuta

► Ekainaren 19an, ostirala. Gaueko  
22.00etan.  
Maria eta Jose aretoan

## USANSOLO ORFEOIAREN saioa

► Ekainaren 20an 20.30etan.  
Parrokian

## ARTISAU FERIA

artisauak lanean, musika...

► Ekainaren 21ean egun osoz  
Eusebio Gurrutxaga plazan

## ZUMAIAKO X. ARGAZKI LEHIAKETA

Zumaiako Argazki Elkarteak  
antolatuta

Lanak helbide honetara bidali behar  
dira: *Foronda Kultur Etxea. 20.750  
Zumaia*

Lanak aurkezteko epea:

► Ekainaren 26a baino lehen  
(zehaztasun gehiago, esku programetan)

## SAN ROMUALDO JAIK

► Ekainak 19, ostirala

• 20.00etan:

Txupinazoa

• 23.00etatik aurrera:

Rock kontzertua

► Ekainak 20, larunbata

• 11.00etatik 13.00ak arte:

Haurrentzako jokoak

• 16.00etan:

Mus txapelketa

• 19.00etan:

Kostilada herrikoia

• 23.00etatik aurrera

Flash Band Orkestarekin dantzaldia

► Ekainak 21, igandea

• 13.00etan

Zozketa eta festen amaiera

## SAN PEDROAK

Dantzaldiak plazan 27, 28 eta 29an  
Txaranga eta trikitilariak  
Haurrentzako parke berezia  
Musika bandaren kontzertua eta  
dantzaldia

Mariatxia, Su artifizialak... eta  
gehiago (ikusi egitaraua)

► Ekainaren 27tik aurrera

## Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

### LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta  
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

(ekainaren 20tik aurrera larunbatetan  
itxita)

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 -  
20.00

### ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

### INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta  
16.30 - 19.30

### AROZTEGIA

#### Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



Argazki eta bideo erreportaiak  
Errebelatzeak  
Kamarak  
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

## ZALLA

### Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

## Betizuen marruak 1997

Garapenkeriari superbizitza lortu duten betizuei (desagertze zorian den behi autoktonoa) eta euren lagunei, *Itoitzekin elkartasuna* taldekoei eskainiak dira fanzine + disko konpaktu edo maketa (aukeran) hauetako marruak, "Betizuen marruak".

Zorioneko kable mozketaren operazioak, izen bat ere bazuen... "Betizu Operazioa".

Hamazazpi marru.

BAPen "Izadiaren agonia", Habeas Corpus "Ecocidio (Paralelo 36 Norte)", Urrerzieta Konexio "Itoiz", Buitraker "Bihotzik ez duzue", Sin Dios "Ecología social", Flitter "Sueño Sabotaje", Corazon del Sapo "El Mambo de Sierra Maestra", Beltzez "Itoiz", Skaparapid "Itoiz", Sociedad

Alkoholika "Itoiz ito ez"; Hamar kanta horiek, espreski bilduma honetarako sortu dira eta grabaketak taldeen kontura izan dira.

Zerrenda osatzen duten gainerako taldeak hauexek dira: Inadaptats "El final de la vida", Negu Gorriak "Ez dezagun sal", Etsaiak "Kapitalismoa errudun", Tarzan "Hubo un tiempo", Kashbad "Amalur", Dut "Hondarribi hills" eta Ruido de Rabiaren "Atomizador".

Naturaren aldeko sentimendu gogorrak.

Rock, rock gogorra eta hardcore doinuak nagusi dira.

Kanta guztiek garapenkeriaren aurkako hitzak dituzte. Hitzok oso ondo ilustratuta jaso ditzakegu

fanzinean, eta gainera, *Itoitzekin elkartasuna* taldekoei historia, ekintzen zerrenda, betizuen gaur eguneko egoera eta giltzaperatutako betizu baten gutuna.

Jende asko mugitu da lan honen atzean, solidarioei sustengua emateko.

Kontuan hartu, etekinak *Itoitzekin elkartasuna* taldekoentzat izango direla.

Bide komertzialetatik at aurkituko duzu bitxikeri hau, sigilu eta distri-buidora alternatiboak arduratu baitira banaketaz., esate baterako:

DDT, Ronda 12, 48005 Bilbo. Merke gainera, ordu beteko iraupena duen disko konpaktua + fanzinea 1250 pezetaren truke.

◀ AGURTZANE ARRIBILLAGA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



Erribera kalea, 2  
Tel. 861125



ZURICH  
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



## Santixoren xarma

*Zumaiarrok Itzurun dugu maite, noski! Baina Santixoko hondartzak ere beti izan du bere xarma, ikus bestela garai batean jartzen ziren toldo eta estalkiak. Orduan gainera, automobilez zegoen hondartzaraino jaistea, eta errepideak ere trafiko gutxiago izaten zuen. Hala ere, beti dago langile porrokaturen bat; ikus bestela eguzkipean pareta altxatzen ari den hori. Ez da moral makala!*



**GURE TXOKOAK** emandako afaria **ENERITZ IRIGOIEN**entzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, lehengo asteko umea Daniel Hernandez baitzen.

## Tripa-festa lehiaketa

Adi, adi! Bi pertsonentzako afari eder bat irabaz dezakezu!



### Noiz eta non irabazi zuten Telmo Deunekoek azken bandera?

Asmatzen duzuenon artean JUARISTI jatetxesk emandako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, ekainaren 30a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

## BELARDENDA SIWA

Izaga Garcia  
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

*fidatzeko baimen guztiak*



**motxian hi!**



**zein:** Juanjo Bastias

**zer:** Tornerua

**nola:** "Pelopin"

**Noia baloratuko zenuke zure iragana?**

Katastrofia.

**Etorkizunerako planik bai?**

Herriarentzat onena.

**Kamarerua izatea pentsatu al duzu?**

Izandakoa naiz. Denboraldi haiekin ez naiz kexatzen

**Futboleko mundiala nork irabazi behar du?**

Brasilek.

**Gomina botatzen al duzu?**

Noizean behin, igertzen al zait ba!

**Neskalagunik ba al duzu?**

Ez.

**Bakailua ala trikitixa?**

Trikitixa.

**Zer eramango zenuke irla bakarti batera?**

Emakume bat, adibidez.

**Eta ohe batera?**

Nerekin lan egiten duen neska ile gorria.

**Zumaiako txoko bat.**

Nikol

**Zein da zure gorputzeko atalik preziatuena?**

Burua

**Kotxea ala motorra, zergaitik?**

Motorra. Betidanik gustatu izan zaizkit, gainera datorren astean motor bat erosiko dut.

**Deseo bat.**

Millonarioa izatea.

**agurrak**

Maitasunez, bihotzez  
maite eta oso ondo  
zaintzen gaituzten  
Kalariko langileei.  
PEÑA KALARI.



**MENDI - ONDO C.B.**  
**ELEKTRIZITATEA**

- ALARMAK
- ANTENAK
  - .Banakakoak
  - .Kolektiboak
  - .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569



# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

**LABEA:**

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528



Itzurun Zuhaitz bidea, 1  
Tel: 943 86 24 30 / 86 03 15  
ZUMAIA

*agustin*  
OL HARAKINA

Bertako haragia eta geuk egindako txarkuteria

*Konfiantza osokoa!*

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE

*Zatuz eta galdetu*

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO




# Urolthermik

## Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia  
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA